

Osasuna garapenerako lankidetzan eta ekintza humanitarioan

2025EKO TXOSTENA

E u s k a d i

 medicusmundi



“Osasuna Garapenerako Lankidetzan eta Ekintza Humanitarioan” Txostena medicusmundi eta Munduko Medikuek elkartearen arteko ekimen bateratu bat da, eta 2002tik osasunaren eta ekintza humanitarioaren arloan nazioarte eta estatu mailan nahiz era deszentralizatuan Garapenari ematen zaion laguntza ofizialaren analisi kritiko bat eskaintzen du. Horrez gain, osasunari modu globalagoan eragiten dioten eta nazioarteko agenda aldiro zedarrizten duten politika, faktore eta egoera garrantzitsuenak ere biltzen ditu, munduko herrialde edo eskualde jakin batzuetan osasunak bizi duen errealitatearen analisi xehatua-goarekin batera.

Euskadiko erakundeek osasunerako lankidetzan eta ekintza humanitarioan egin duten lana aztertzen duen txosten labur hau nazioarteko egoera jorratzen duen txosten luzeagoaren osagarria da.

Informazio guztia CooperaSalud online tresnan dago eskuragarri:

<http://www.cooperasalud.org/>

1. Espainiako lankidetzaren deszentralizazioa

Espainiako lankidetzaren deszentralizatuak autonomia erkidegoek (AE) eta tokiko erakundeek (TE) egiten duten lankidetzaren biltzen ditu. Lankidetzaren mota hau berezia da eta balorazio ona du nazioarte mailan; inguruko herrialdeetan ez da horrelako lankidetzarik gauzatzen. Lankidetzaren deszentralizatuak hazkunde ikusgarria bizi izan zuen 15 urtetan, 1994tik 2008ra bitartean; batik bat, 2005etik aurrera. Hurrengo sei urteetan, 2009tik 2014ra bitartean, aldiz, atzeraldia izan zuen eta 1998ko mailaren azpitik jartzera heldu zen. 2015etik 2019ra berriz, sendotu egin zen lankidetzaren deszentralizatuaren goranzko joera, eta urtero 25 milioi euro baino gehiagoko igoera izan zuen. 2020an, COVID-19 pandemiak nabarmen eragin zion joera horri, eta erakunde

batzuek eutsi eta, are, garapenerako laguntza ofizialerako (GLO) bere partidak igo bazituzten ere, beste askok jaitsi egin zituzten. Halatan, lankidetzaren deszentralizatu globala 7,2 milioi euro jaitsi zen. 2021ean eta 2022an, pandemiaren ondorioak oso presente zirela, lankidetzak gora egin zuen berriz ere modu esanguratsuan, eta laguntza 428,1 milioietan kokatu zen. 2023a egonkortze urtea izan zen, 2022aren antzeko zifrekin, soilik %0,56 gutxiago. 2024an antzekoa gertatu zen, %0,72 murriztuz eta 412,6 milioi eurotara iritsiz.

Beste egoera batean baikorrak izatera bultzatuko gintuzketen datu horiek gorabehera, egiazko zor, lankidetzaren deszentralizatuak, oro har, ozta-ozta gaitzen du aurrekontu autonomikoen % 0,12; % 0,7ko konpromisotik oso urrun. Argi eta

1. GRAFIKOA. Espainiar estatuko lankidetzaren deszentralizatuaren bilakaera




ITURRIA: EGILEEK EGINA GIPZNK ARGITARATUTAKO DATUETAN OINARRITUTA

Euskadiren osasun lankidetza zifratan 2024



EUSKADIREN OSASUNERAKO GLO



EUSKADIREN TOKIA AUTONOMIA ERKIDEGOEN ARTEAN




EUSKADIN NORK JARTZEN DU GEHIEN OSASUNERAKO LANKIDETZAN?



EUSKO JAURLARITZAREN OSASUN LANKIDETZA

EREMU GEOGRAFIKOKA




Saharaz hegoaldeko Afrika: % 43,38
 Zehaztu gabeko GBHak: % 28,12
 Ipar eta Erdialdeko Amerika: % 26,15
 Ipar Afrika: % 1,17
 Europa: % 1,17

SEKTOREKA

%36
oinarrizko osasuna

% 13
sexu eta ugalketa osasuna



garbi, apustu hori ez da nahikoa, eta, gainera, zenbait autonomia-erkidegotan lankidetza politikek murrizketa handien mehatxua izan dute. Lankidetza politika elkartasun globalaren adierazpen programatua da, baina hau murriztearen aldekoek, itxuraz, naturaltasunez onartzen dute ez direla ezinbestekoak.

Testuinguru globalizatuan, lankidetza deszentralizatuak onurak sortzen ditu epe ertain eta luzera planetako biztanle guztientzat, baita herrialde aberatsenetan bizi garenontzat ere. Horregatik, ezinbestekoa da lankidetza horrek bere argudioak indartzea, emaitzak ikusgarriago egitea eta gizartearen zati handi batek oraindik ezagutzen ez duen erabilgarritasuna argi eta garbi erakustea. Horrela soilik indartu ahal izango da lankidetza eraginkorragoa eta eragin sakonagoa duena.

Txosten honek Euskadiko lankidetzaren errealitatea aztertzen du lankidetza horren kalitatea hobetzeko asmoz, batik bat, osasunari eta ekintza humanitarioari (EH) dagokionez. Aldi berean, politika hauek ekitate eza murrizteko betetzen duen eginkizuna nabarmentzen du.

Dokumentu honetako eta medicusmundik eta Munduko Medikuek egindako "Osasuna Garapenerako Lankidetzan eta Ekintza Humanitarioan" txosteneko datuen analisia Garapenaren Laguntzarako Batzordeak (GLB) eta Kanpo Arazoetako, Europar Batasuneko eta Lankidetzako Ministerioak erabilitako irizpidean oinarritzen da. Hau da, Garapenerako Laguntza Ofiziala-

ren fluxuak kutxako kontabilitate-irizpidearekin —jarritako funtsak— bat etorrira aztertzen ditugu, eta ez sortzapen-irizpidean oinarrituta —konprometitutako funtsak—, zeina idatziz adierazitako, funtsekin lagundutako eta emaileak bere gain hartutako betebeharrimo baten bidezko konpromisoan gauzatzen den. Jarritako laguntzaren irizpideari esker, urtero jakin dezakegu emaile batek benetan egin dituen ekarpenak, eta emaile horrek dituen baliabideekiko eta beste emaile batzuekiko egiten duen ahalegina neur daiteke, urte anitzeko konpromisoen kontabilizaziotik erator daitezkeen nahasketak saihestuz. Oro har, txosten hauetan aurkezten diren datuak, besterik adierazi ezean, aipatu Ministerioaren Garapen Iraunkorreko Politiken Zuzendaritza Nagusiak (GIPZN) bere Info@OD tresnaren bidez bildutakoak dira, eta datu horiek autonomia erkidegoek edo UPEFek (Udalerrien eta Probintzien Espainiako Federazioa) emandakoetan oinarritzen dira.

Azkenik, beharrezkoa da GLO datuen analisia hobetzeko tokiko lankidetzak egindako ahalegina aitortzea. 100.000 biztanle baino gutxiagoko udalen ekarpena ez desagregatzea ohikoa izan da, baina 2024an, arazo hau murrizten lagunduko duen aurrerapen metodologiko esanguratsua gertatu da. Aurrerapen honek azterketa zehatzagoa eta osoagoa ahalbidetzen du. 2024an 6.099.605 euro gelditu dira desagregatu gabe, tokiko GLOren %6,2; aurreko urteetan bikoitza zen desagregatu gabekoa, beraz, TEen GLOren analisi hau erraztu da.

DATUEN ANALISIRAKO OHARRA

Hemen aztertzen diren datuak GIPZNi igortzen zaizkionak dira, eta datu horiek ez datoz bat zehazki eLankidetza-Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziak (LEEA) 2024ko memorian argitaratutakoekin. eLankidetzak 2024an 61.651.489 euro erabili zirela dio (55.425.130 euro eLankidetzan eta 6.226.359,30 beste sail batzuetatik); GIPZnren arabera, Eusko Jaurlaritzak 330.311 euro gutxiago bideratu zituen lankidetzara. Zenbateko hori ez da oso garrantzitsua lankidetzako aurrekontu orokorra kontuan hartuta, sektore horri esleitutako guztizkoaren % 0,5 baino ez, baina Eusko Jaurlaritzak lankidetzan egiten dituen ahaleginak zintzo islatzeko agentzien arteko komunikazioa hobetu behar dela adierazten du.

2. Euskadiren Garapenerako Laguntza Ofiziala

2024an, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde publikoek 87.410.541 euro bideratu zituzten Garapenerako Laguntza Ofizialera, hau da, 2023an baino % 8,4 gehiago. Eusko Jaurlaritzak, Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziaren bitartez, funts gehien bideratzen dituen erakundeak izaten jarraitzen du; 61.321.178 euro, hau da, gutzitzkoaren % 70,15, 2023koaren oso antzeko pisua. eLankidetzak % 7,5 (4,29 milioi) handitu zuen bere GLO, eta EAeko tokiko erakundeek (TE) ekarpenak % 10,6 igo ziren, 26.089.363 euro bideratuz (ia 2,5 milioi euroko gehikuntza). Horien artean, Foru Aldundiek 14.645.762 euroko ekarpena egin zuten (% 56,1), eta berretsi egin zuten EAeko lankidetzan duten paper nagusia. Udalek 11.443.601 euroko ekarpena egin zuten. Nahiz eta datu hauek Euskal Autonomia Erkidegoa Estatuko erreferente gisa kokatzen duten, Lankidetzari eta Elkartasunari buruzko 3/2024 Legean ezarritako % 0,7ra iristeko bidea egiteke dago oraindik, eta, beraz, beharrezkoa da datozen urteetan hazkundea iraunkorra izatea.

Egoera nabarmen aldatzen da osasun arloko lankidetzaren espezifikoa aztertzen denean. Arlo, honetan Euskadi ez da Estatu mailako erreferentzia. 2024ko datuek joera historiko bat berresten dute: GLOren gorakadak ez dute osasun sektorearekiko konpromisoan gorakadarik eragiten.

OHARRA: Osasun sektorearen azterketa hau ulertzeko, funtsezko elementu metodologiko bat kontuan hartu beharra dago: eLankidetzak CRS kodeak bere lehentasun estrategikoen arabera esleitzen ditu, eta lehentasun horien artean genero ekitatea nabarmentzen da. Horren ondorioz, sexu eta ugalketa osasunari lotutako hainbat ekimen emakumeak ahalduzko edo giza eskubi-deen aldeko ekintza gisa sailkatzen dira, eta ez osasun esku hartze gisa. Ekimen horiek osasun arloko GLO gisa zenbatuko balira, 1,6 milioi euro gehitu ahal izango litzaizkieke Eusko Jaurlaritzak osasunera bideratzen dituen kopuruei, eta horrek ia bikoiztu egingo luke CRS kodeen bidez erregistratutako bolumena. Hala ere, doikuntza hori eginda ere, ahalegina ez litzateke nahikoa

Osasun lankidetzara bideratutako ordainketa gordinek gora egin duten arren, ehunekoa ez da nahikoa. Eusko Jaurlaritzak 1.855.151 euro esleitu zituzten osasunari, 2023an baino % 22,5 gehiago, baina oso urrun dago gutzitzko GLOari dagokionez ahalegin egokia egiteki. TEen kasuan, osasun arloko lankidetzak ia bikoiztu egin du 2023koa, 1.830.645 eurora iritsiz, baina arazoa berriro agertzen da haren pisu erlatiboa aztertzean.

2024an, eLankidetzak bere GLOren % 3,03 baino ez zuen bideratu osasunera, 2023an baino puntu erdi bat gehiago besterik ez; TEak, berriz, % 7,02ra iritsi ziren, aurreko urtean baino ia lau puntu gehiago. Hala ere, ehuneko horietako bat ere ez da Estatuko autonomia erkidegoen batez bestekora hurbiltzen (% 11,49). Are gehiago, eLankidetzak Estatuko batez bestekotik (% 6,9) behera ere geratzen da. Hazkundea positiboa bada ere, osasuna indartu nahi bada, erritmoa ez da nahikoa.

Zifra hauek oso urrun daude euskal herritarrei ere eragiten dieten osasun globalaren erronkei modu eraginkorrean aurre egiten laguntzeko beharrezkotzat jotzen dugun gutxieneko % 12tik. Euskal GLOren barruan osasun sektoreari emandako lehentasun eskasa fenomeno egonkorra da analisi konparatibo hauek egiten ditugunetik, eta bereziki areagotu da 2019tik.

izango: osasunaren pisu erlatiboa apenas iritsiko litzateke % 5,6ra, osasun globalaren erronkei eraginkortasunez aurre egiten laguntzeko beharrezkotzat jotzen dugun % 12tik oso urrun.

Azterketa Garapen Jasangarriko 3. Helburuaren xedeak erabiliz egiten denean, Eusko Jaurlaritzak 4.015.678 euro bideratu zituen osasunera bideratutako ekimenetara, CRS kodeek adierazten dutenaren bikoitza baino gehiago. Kasu horretan, osasun sektoreari bideratutako ehunekoa GLOren % 6,5 izango litzateke. Kalkulu hori egiteko, eLankidetzak GIPZnri emandako datuak erabili ditugu, eta horrek aukera ematen du gainerako autonomia erkidegoekin modu homogeneoan konparatzeko.

Txostenak sektoreko GLO aztertzeke erabiltzen duen metodologia CRS (Creditor Reporting System) sailkapenean eta GLB/ELGAK estandarizatutako gidalerro multzo batean oinarritzen da. Gidalerro horiei esker, laguntza sektoreka alderatu, gehitu eta ebaluatu daiteke, diru-emaielen artean modu homogeneoan. Sistema horrek eskatzen du sektoreen araberrako sailkapenak esku hartzearen helburu nagusia izatea, ez tresna mota eta aktore exekutatuak. CRS kode bakoitzaren eta GJHen arteko korrespondentzia egin daitekeen arren, ez dugu halakorik egiten, bi sailkapenak ez baitziren bat etortzeko diseinatu eta, beraz, anbigutasunak, gainjartzeak eta informazio galerak eragiten dituen egiturazko asimetria dago.

1. TAULA. Euskal lankidetzak 2024an egindako ekarpenari buruzko datu orokorrak

	GLO ekintza kopurua/ osasunekoak	GLO kopurua (€)	osasuneko kopurua (€)	osasunaren %
AE	425/10	61.321.178	1.855.151	3,03
TE	663/57	26.089.363	1.830.645	7,02
GLO GUZTIRA	1008/67	87.410.541	3.685.796	4,22

ITURRIA: EGILEEK EGINA GIPZN ERAKUNDEAK ARGITARATUTAKO GLO DATUETAN OINARRITUTA

Finantzatutako ekintzen kopuruari dagokionez, Eusko Jaurlaritzak 425 esku hartze zenbatu ditu 2024an, 2023an baino 53 gehiago. Hala ere, 10 bakarrik dira osasunekoak, hau da, gutzitzkoaren % 2,3. Bestalde, EAeko tokiko erakundeek 663 ekintza egin zituzten, aurreko urtean baino 70 gehiago; horietatik % 8,6 izan ziren osasun sektorekoak, 57 guztira, 2023an baino 20 gehiago. Ekonomiari dagokionez, Eusko Jaurlaritzak finantzatutako osasun proiektuen batez besteko kostua nabarmen jaitsi da: proiektuko 216.230 eurotik 185.551 eurora igaro da, hau da, 30.679 euro gutxiago ekintzako. Aldiz, TEek finantzatutako osasun proiektuen batez bestekoa % 29 igo da: 32.116 euroko proiektuko.

Autonomia erkidegoen arteko azterketa konparatibo bat egiten bada, 2024an

ordaindutako GLO zifra gordinei erreparatu, Eusko Jaurlaritzak hirugarren postuari eusten dio (17 Aeren artean). Goiko tokietan duen posizio historikoak lankidetzaren politikekiko konpromiso iraunkorra izan duela erakusten du.

Zifra absolutuei baino, osasunari eskaintako GLOren ehunekoa aztertuz gero, egoera askoz ere txarragoa da: % 3,03 izanik, Eusko Jaurlaritzak azken postuan dago AE guztien artean, azken aurreko autonomia erkidegotik oso urrun (Errioxa: % 5,26), eta autonomia erkidegoen batez bestekotik (% 11,49) are urrunago. Datu horiek hausnarketa bat bultzatu beharko lukete osasunak euskal lankidetzan izan behar duen lekuari buruz, bereziki osasun erronkak gero eta handiagoak diren eta garrantzi horren araberrako konpromisoa eskatzen duten testuinguru global batean.

2. TAULA. AEen GLO eta osasuneko GLO

AE	2024ko GLO	2024ko osasun GLO	osasuneko GLOren %
Andaluzia	20.100.028	1.198.925	5,96
Aragoi	1.475.823	188.467	12,77
Asturias	6.553.352	926.258	14,13
Balearrak	9.681.164	1.024.650	10,58
Kanariak	3.206.354	911.843	28,44
Kantabria	3.254.669	498.467	15,32
Gaztela eta Leon	5.639.518	1.066.357	18,91
Gaztela-Mantxa	3.353.855	235.326	7,02
Katalunia	90.573.710	12.669.939	13,99
Valentziako Erkidegoa	66.245.636	6.981.994	10,54
Extremadura	5.979.841	599.639	10,03
Galizia	8.300.491	948.770	11,43
Errioxa	3.368.368	177.245	5,26
Madril	5.321.047	1.174.534	22,07
Murtzia	1.087.556	269.937	24,82
Nafarroa	19.295.635	5.468.669	28,34
Euskadi	61.321.178	1.855.151	3,03
GUZTIRA	314.758.224	36.196.171	11,49

ITURRIA: EGILEEK EGINA GIPZN ERAKUNDEAK ARGITARATUTAKO GLO DATUETAN OINARRITUTA

Osasun sektoreari emandako lehentasun eskasa garbiago ikusten da euskal lankidetzak lankidetzara autonomiko orokorrean duen pisua eta bereziki osasunean duen pisua alderatzen direnean. Zifra absolutuetan, euskal erakundeek osasun lankidetzara bideratutako 1,8 milioi euroak Espainiako autonomia erkidegoek osasunera bideratzen duten guztizkoaren % 5,1 baino ez dira. Hala ere, bere GLO orokorra autonomia erkidegoen guztizkoaren % 19,5 da, hau da, osasun arloan egiten duen ekarpen erlatibo baina ia lau aldiz gehiago. Arrakala horrek agerian uzten duena zera da: Euskal Autonomia Erkidegoa garapenerako lankidetzan lider izan arren, osasunak bigarren mailako lekua izaten jarraitzen du bere lehentasunen artean; erkidego gisa GLOn duen pisua eta ibilbidea kontuan hartuta, osasuna lehentasun handiagoa izatea espero zitekeen.

Egia da zifra absolutuek ez dutela berez islatzen autonomia erkidego bakoitzak lankidetzarekin duen konpromiso maila, hainbat faktoreren mende baitaude, besteak beste, biztanleriaren tamaina eta aurrekontuen tamaina. Horregatik, benetako ahalegina hobeto

neurtzeko aukera ematen duten adierazleak aztertuko ditugu, hala nola biztanleko GLO gastua eta lankidetzara bideratutako aurrekontuaren ehunekoa. 2024an, Eusko Jaurlaritzak berriro handitu zituen lankidetzarako baliaibideak, eta 27,37 euro bideratu zituen biztanle bakoitzeko, 2023an baino 1,78 euro gehiago eta erkidegoko batez bestekoa (6,43 euro) baino lau aldiz gehiago. Adierazle honi dagokionez, Euskadi bigarren postuan dago 17 autonomia erkidegoen artean, Nafarroaren atzetik soilik (biztanleko 28,23 eurora iritsi zen). Eta GLO aurrekontu orokorrari dagokionez, Euskadi lehen postuan dago, lankidetzara bideratutako aurrekontuaren % 0,407 baitu. Ehuneko horrek nabarmen gaintzen du Autonomia Erkidegoko eta Estatuko batezbestekoa, baina urrun jarraitzen du lankidetzari eta Elkartasunari buruzko otsailaren 15eko 3/2024 Legean agindutako % 0,7tik.

Euskal GLOren bilakaera denboran zehar aztertuz gero, ikus daiteke ez duela beste autonomia erkidego batzuen ezaugarri den aldakortasuna izan, eta horrek erakusten du lankidetzarekiko konpromiso iraunkorra dagoela, nahiz eta une kritikoak ere igaro dituen.

3. TAULA. Erkidegoen aurrekontuaren GLO portzentajea eta AEek 2024an GLOan biztanleko egindako gastua (eurotan)


AE	2024ko GLO	AEren aurrekontua	GLO %	Biztanleria (2024)	GLO biztanleko
Andaluzia	20.100.028	42.026.092.290	0,048	8.674.251	2,32
Aragoi	1.475.823	8.095.119.100	0,018	1.353.379	1,09
Asturias	6.553.352	6.284.088.930	0,104	1.014.191	6,46
Balearrak	9.681.164	7.320.653.450	0,132	1.244.757	7,78
Kanariak	3.206.354	11.970.645.240	0,027	2.257.957	1,42
Kantabria	3.254.669	3.547.667.850	0,092	593.365	5,49
Gaztela eta Leon	5.639.518	13.480.865.050	0,042	2.399.487	2,35
Gaztela-Mantxa	3.353.855	11.555.202.170	0,029	2.122.070	1,58
Katalunia	90.573.710	47.176.286.930	0,192	8.120.596	11,15
Valentziako Erkidegoa	66.245.636	30.245.304.110	0,219	5.415.735	12,23
Extremadura	5.979.841	7.508.147.250	0,080	1.053.072	5,68
Galizia	8.300.491	14.802.926.970	0,056	2.715.606	3,06
Errioxa	3.368.368	1.967.216.470	0,171	327.062	10,30
Madril	5.321.047	30.584.355.910	0,017	7.122.734	0,75
Murtzia	1.087.556	7.819.336.860	0,014	1.585.291	0,69
Nafarroa	19.295.635	6.355.410.180	0,304	683.404	28,23
Euskadi	61.321.178	15.080.502.610	0,407	2.240.145	27,37
GUZTIRA	314.758.224	265.819.821.370	0,118	48.923.102	6,43

ITURRIA: EGILEEK EGINA GIPZN ETA INE ERAKUNDEAK ARGITARATUTAKO GLO DATUETAN OINARRITUTA

Eusko Jaurlaritzaren Garapenerako Laguntza Ofizialaren lehen urteetan, GLOk etengabeko hazkundea izan zuen, 2012an 54,4 milioi eurora iritsiz. Baina 2013an, eta krisi ekonomikoaren argudioarekin, Eusko Jaurlaritzaren GLOak behe-

ra egin zuen, % 42,5 murriztuz bere GLO. 2014tik aurrera susperraldi iraunkorra hasi zen, tarteko gailur batzuekin; 2024ko 61,3 milioi euroak dira serie historiko osoko zifrarik altuena. 2024an % 0,7ko helburua ezartzen duen Legea ere onartu

2. GRAFIKOA. GLO orokorraren eta osasuneko GLOren bilakaera, Eusko Jaurlaritza



ITURRIA: EGILEEK EGINA GIPZN ERAKUNDEAK ARGITARATUTAKO GLO DATUETAN OINARRITUTA


EAEEn, baina 2025 eta 2026rako proiektioek atzerapauso txikia erakusten dute, konpromiso hori lortzeko beharrezkoa den hazkundea geldiaraziko dutenak. Aurreikuspen horiek tentuz interpretatu behar dira, izan ere, eLankidetzaren datuak baino ez dituzte jasotzen; hau da, ez dituzte Eusko Jaurlaritzako beste sail batzuen ekarpenak jasotzen, eta hauek gainerako autonomia erkidegoetan baino pisu handiagoa izan ohi dute GLOn.

Osasun gastuaren bilakaeraren analisiak erakusten duenez, osasuna bigarren mailan mantendu da Eusko Jaurlaritzaren lankidetzaren baitan. Ez du EAEko GLO orokorrarena bezalako bilakaerarik izan; ondo markatutako hainbat etapa izan ditu, baina eredu konstantea izan da.

2012ra arte, osasun lankidetzara bideratutako zifra absolutuek goranzko joera izan zuten, eta urte horretan maximo historikora iritsi ziren: 3,4 milioi euro. Hala ere, hedapenaldi horretan ere, osasunaren pisu erlatiboa ez zen inoiz % 7tik gorakoa izan euskal GLOren barruan. Urte horretatik aurrera, osasun gastuaren joerak zifren jaitziera progresiboa jasan zuen, 2020an gutxieneko historikora iritsiz (613.633 euro). COVID 19 pandemiaren eraginaren ondoren joera aldaketa ikusten da, 2024an 1,8 milioi eurora heldu arte. Hala ere, zifra hori 2012an bideratutakoaren % 53,3 baino ez da, eta horrek agerian uzten du susperraldia partziala dela eta sektoreak hobetu daitekeen posizioan jarraitzen duela.

Zaila da justifikatzen Eusko Jaurlaritzaren lankidetzaren osasunari esleitutako ehunekoa historikoki hain txikia izatea: inoiz ez % 8,1etik gorakoa izan, osasunarekiko konpromiso eztabaia ezina duen erkidego batean. Euskadik osasun ekitatean erreferentea den sistema publiko bat, Osakidetza, 2026an 5.327 milioi euro bideratuko ditu osasunera, aurrekontuaren % 32, eta azken zortzi urteetan % 45 hazi da osasun aurrekontua. Pisu horrek kontraste deigarria egiten du 2024an GLOren barruan osasunak duen % 3,03ko pisuarekin; gainerako diru-emaielen batez bestekoaren oso azpitik dago, normalean % 11tik % 15era bitartean bideratzen baitute osasun lankidetzara.

3. GRAFIKOA. CRS sektoreak osasunerako euskal lankidetzan (2024)



ITURRIA: EGILEEK EGINA GIPZN ERAKUNDEAK ARGITARATUTAKO GLO DATUETAN OINARRITUTA

Datu horiek kontuan hartuta, ezinbestekoa da Eusko Jaurlaritzaren lankidetzaren osasun sektoreak duen pisua nabarmen handitzea. Ez soilik osasuna giza garapenerako funtsezkoa delako, bereziki populazio ahulenen artean, baizik eta COVID 19 pandemiak argi erakutsi duelako osasun globalaren erronkek euskal herritarrei ere eragiten dietela. Osasunaren arloko lankidetzaren indartzea ez da soilik nazioarteko elkartasun ekintza bat: babes kolektiborako inbertsio estrategikoa ere bada.


GLBren CRS kodeek osasunerako lau azpi-sektore bereizten dituzte: oinarrizko osasuna, osasun orokorra, sexu- eta ugalketa-osasuna (SUO), eta gaixotasun ez-kutsakorrek (GEK). Horiek oinarritzat hartuta, 2024an Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziaren GLOak hiru arlo jorratu zituela ikus dezakegu: aurreko urteetan bezala, osasun orokorrak izan zuen pisu handiena, osasunera bideratutako baliabideen erdia bideratu zen (% 51). Oinarrizko osasunak bigarren tokian jarraitzen du, % 36rekin, 2023an baino ehuneko 5 puntu gutxiagorekin. SUOk % 13 baino ez du jasotzen, aurreko urtean baino hiru puntu gehiago. Deigarria da SUOren aldeko apustu eskasa, bereziki genero ikuspegia lehen-tasun estrategiko nabarmenena duen lankidetzaren berehalako eta beharrezko hazkundea

azpi-sektoreen arteko oreka handiagora bideratu beharko litzateke, bereziki SUO indartuz eta gaixotasun ez-kutsakorren (GEK) azpi-sektore ahaztua berreskuratuz. Bi eremu horiek funtsezkoak dira osasun sistema publikoak indartzeko eta biztanleria kalteberenen beharrei erantzuteko, osasun lankidetzako edozein politika koherente gidatu beharko luketen bi ardatzak.

Finantzaketa zein lurraldetara bideratu den aztertuz, osasun arloko GLOren % 28,1 geografikoki zehaztu gabeko herrialdeetara bideratu zen; 2023an ia bikoitza izan zen kopuru hau, baina kopuru honek lurralde azterketa zailtzen du oraindik ere. Kausak aurreko urtekoen antzekoak dira: batetik, COVAX egitasmoari egindako ekarpena (proba, tratamendu eta txertoen garapena eta ekoizpena bizkortzeko eta haien eskuragarritasun ekitatiboa bermatzeko aliantza; ekarpen hau positibotzat jotzen dugu); eta, bestetik, aldi baterako Euskadin hartutako atzerriko adingabeentzako osasun arreta (arreta EAEEn ematen denez, laguntza ezin zaio herrialde edo eskualde jakin bati esleitu).

Zehaztuta dauden lurraldeei dagokienez, 2024ko Euskadiko osasun arloko GLOren banaketa geografikoa koherentea da sektorearen lehen-tasun globalekin. Saharaz hegoaldeko Afrika da oraindik helmuga nagusia, funtsen % 43,38 biltzen baitu, iaz baino puntu bat gehiago. Bigarren, Ipar eta Erdialdeko Amerika dago, % 26,15ekin; Europak eta Ipar Afrikak, berriz, esleipen marjinalak baino ez dituzte jasotzen. Koherentzia geografikoaren ikuspegitik, orientazio hori egokitzat jo daiteke; izan ere, Saharaz hegoaldeko Afrika da osasunaren egitura gabezia handienak dituen eskualdea, eta, beraz, baliabideak kontinente horretan kontzentratzeak premia irizpideei eta nazioarteko lehen-tasunei erantzuten die.

4. GRAFIKOA. Euskadiko osasun GLOren banaketa geografikoa (2024)



ITURRIA: EGILEEK EGINA GIPZN ERAKUNDEAK ARGITARATUTAKO GLO DATUETAN OINARRITUTA

Hala ere, datu horiek tentuz interpretatu behar dira. Iaz adierazi genuen bezala, izendapen geografiko esplizitua duten esku hartzeen kopurua txikia da, eta horrek esan nahi du bolumen handiko proiektu batek edo bik nabarmen alda dezaketela eskualde banaketa. Muga metodologiko horrek datuen irakurketa baldintzatzen du, eta esku hartzeen bolumena eta egonkortasuna handitzeko beharra azpimarratzen du, patroio sendagoak lortzeko.

Euskal tokiko erakundeak eta osasuna

2024an, EAEko hamaika tokiko erakundeak bideratu zituzten funtsak osasun arloko GLO-ra, 2023an baino hiru gehiago, sektore horrekin konprometitutako eragileen kopurua handitzeko joera berresten du. Aurrerago aztertuko ditugun Foru Aldundiez gain, Donostiako Udala nabarmentzen da bereziki; izan ere, 200.000 euro baino gehiago bideratzen ditu osasunera, eta % 68ko igoera izan du aurreko ekitaldiarekin alderatuta eta tokiko finantzaizaile nagusien artean duen

1 2023an bezala, ekintza hauen baitan Osakidetza Euskadin Ginea Bissauko adin txikikoak artatzeko hitzarmena dago. Ekintza honek 2024ko Euskal osasun lankidetzaren % 6 suposatzen du; akaso, kopuru hau Saharaz hegoaldeko Afrikara bideratutako laguntza gisa zenba liteke. Baina AEEn arteko konparaketetan irizpide bera erabiltzeko, geografikoki zehaztu gabeko ekintzen barruan mantendu dugu.

4. TAULA. Osasun GLOa euskal TEetan (2024)

TE	GLO	Osasun GLOa	Osasuna %
Beasaingo Udala	227.000	20.000,00	8,81
Bilboko Udala	3.732.191	98.320,50	2,63
Donostiako Udala	2.352.891	212.429,05	9,03
Durangoko Udala	168.810	34.962,83	20,71
Ordiziako Udala	96.769	12.000,00	12,40
Vitoria-Gasteizko Udala	3.389.573	26.999,84	0,80
Zarauzko Udala	317.063	49.393,21	15,58
Zumarragako Udala	100.000	7.000,00	7,00
Arabako Foru Aldundia	1.272.803	20.000,00	1,57
Gipuzkoako Foru Aldundia	4.475.312	626.591,20	14,00
Bizkaiko Foru Aldundia	8.897.647	722.948,64	8,13
GUZTIRA	25.030.059	1.830.645,27	7,31

ITURRIA: EGILEEK EGINA GIPZN ERAKUNDEAK ARGITARATUTAKO GLO DATUETAN OINARRITUTA

lekua sendotuz. Bilboko Udalak ere 100.000 euro inguru jarri zituen, nahiz eta osasunak bere lankidetzaren politikan duen garrantzi erlatiboa oso txikia den oraindik, % 2,6 ingurukoa.

Osasunak udal bakoitzaren lankidetzaren barruan duen garrantziari dagokionez, Durango eta Zarautz nabarmentzen dira (% 20,71 eta % 15,58, hurrenez hurren) eta, ondoren, Ordizia (% 12,4). Hiru udal horietan bakarrik gaintzen du osasunak GLO totalaren % 10, eta horrek agerian uzten du udal hauen konpromiso esanguratsua eta EAEko udalerrien artean gutxiengo dela osasun lankidetzaren lehenesten duena.

Tokiko administrazioei dagokienez, ezinbestekoa da Foru Aldundien zeregina azpimarratzea. Izan ere, lankidetzaren duten inplikazioa bereziki garrantzitsua da; Euskal Autonomia Erkidegoko toki mailako GLO totalaren % 56,1 biltzen dute eta lankidetzaren sistemaren egiturazko eragileak dira. Estatua mailako ikuspegitik ere zentralitate hori nabarmena da: Bizkaiko Foru Aldundia da Estatu osoan GLOa baliabide gehien bideratzen duen

probintzia mailako erakundea, ia 8,9 milioi euroarekin. Gipuzkoako Foru Aldundia sailkapeneko laugarrena da, 4,4 milioiarekin, eta Arabako Foru Aldundia zortzigarren, 1,2 milioiarekin.

Hala ere, osasun arloko lankidetzaren espezifikoki aztertuz gero, egoera heterogeneoa da. Bizkaiko Foru Aldundiak bideratzen du sektorerako baliabide gehien (722.949 euro), eta osasun arloko GLO bolumen absolutuari dagokionez, Espainiako lehen toki erakundea da. Gipuzkoako Foru Aldundiak zifra txikiagoa du (626.591 euro), baina bere konpromiso erlatiboa handiagoa da; bere GLOren % 14 da, eta Bizkaian, berriz, % 8,1. Aitzitik, Arabako Foru Aldundiak 20.000 euro baino ez ditu bideratu osasunerako 2024an, 2023koaren ia erdia, eta horrek sektorearen pisua murrizten du: bere GLOren % 1,57. Beherakada horren ondorioz, Araba atzeratuta dago, argi eta garbi, beste bi aldundien aldean, eta mugatu egiten du EAEko osasun lankidetzari egiten dion ekarpena.

Laburbilduz, euskal tokiko erakundeek osasun lankidetzarekiko interesa indartu eta homogeneizatu behar dute, eta, horri esker, gaur egun mundu mailako osasun erronka handiei aurre egiteko ekarpenak egin behar dituzte.

5. TAULA. Espainian GLO gehien bideratzen duten 10 aldundiak (2024)

ALDUNDIA	GLO	Osasun GLOa	Osasuna %
Bizkaia	8.897.647	722.949	8,13
Kanaria Handia	6.468.840	-	0,00
Bartzelona	5.055.128	60.000	1,19
Gipuzkoa	4.475.312	626.591	14,00
Valentzia	1.600.009	172.669	10,79
Tenerife	1.287.453	210.000	16,31
Cordoba	1.283.077	63.092	4,92
Araba	1.272.803	20.000	1,57
Zaragoza	1.238.683	326.767	26,38
Sevilla	1.224.956	259.670	21,20

ITURRIA: EGILEEK EGINA GIPZN ERAKUNDEAK ARGITARATUTAKO GLO DATUETAN OINARRITUTA

3. Ekintza Humanitaria Euskadin

2024an, krisi humanitarioak areagotu egin dira, aurretik inoiz egin ez bezala. Ezaugarri nabarmenen artean: biztanleria zibilaren aurkako indarkeria areagotzea, langile eta material humanitarioek jasandako oztopoak eta osasun langileen eta azpiegituren aurkako eraso sistematiakoak. Beharren tamaina — 323 milioi pertsona baino gehiagok laguntza behar dute — ez dator bat nazioarteko finantzaketaren murrizketarekin; murrizketek egoera kritikoa dauden milioika pertsona estaldurarik gabe utzi ditu.

Komunitateen erresilientzia murriztu da eta desplazamendu masiboak ugari dira, neurri handi batean, muturreko fenomeno klimatikoaren, indarkeria orokortuaren eta biztanleria zibilaren eta langile humanitarioen aurkako erasoekin konbinazioak eraginda. Behar handienak Ekialdeko eta Hegoaldeko Afrika, Ekialde Ertaina eta Asia bezalako eskualdeek biltzen dituzte, krisi klimatikoak eta luzaroko gatazkek bertako milioika pertsonen zaurgarritasuna areagotu eta haien biziraupena arriskuan jartzen dute.

2024an, nazioarteko finantzaketa humanitaria 36.367 milioi dolareraino iritsi zen, 2023an baino gutxiago, gero eta konplexuagoak diren

krisi-testuinguru batean. Estatu Batuek ekarpena nabarmen handitu zuten eta emaila nagusi gisa sendotu ziren (munduko ekintza humanitario osoaren % 38,9), gainerako emaila handi gehienek beren ekarpenak murriztu baitzituzten, sektorearen erantzuteko gaitasunari larriki eragiten dion beherantzko joera berretsiz.

Azkenik, ekintza humanitarioko osasun sektoreak ere finantzaketa krisi kritikoa bizi du, osasun beharrak areagotu egin baitira gatazketatik, hondamendi naturalengatik eta epidemia agerraldiengatik. 2024an, nazioarteak osasunerako bideratutako funtsak 651 milioi dolar murriztu ziren 2023arekin alderatuta, eta milioika pertsona estaldurarik gabe utzi ziren.

Mundu mailako testuinguru horretan kokatu behar da 2024an euskal lankidetzaren sustatutako ekintza humanitaria.

GIPZNren datuen arabera, 2024an euskal lankidetzaren 13.218.595 euro bideratu zituen ekintza humanitariora (EH), 2023an baino % 10 gehiago. Kopuru honetatik, 11.547.463 euro Eusko Jaurlaritzak finantzatu zituen, aurreko urtean baino 1,5 milioi euro gehiago. Euskal tokiko erakundeek, berriz, 1.671.132 euro bideratu zituzten EHra, 2023an baino pixka bat gutxiago.

DATUEI BURUZKO OHARRA

Txosten honetan aurrez adierazi den bezala, EHko proiektuei esleitutako GLOren CRS kodeei dagokienez, aldeak daude GIPZNren datuen eta eLankidetzaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren datuen artean.

eLankidetzaren 2024ko memoriako datuen arabera, Eusko Jaurlaritzak ekintza humanitariora 12.193.564 euro bideratu zituen guztira, baina GIPZNren arabera, 11.547.463 euro izan ziren.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren diru laguntza deialdien ebatzpenaren arabera, 2024an proiektuetara 439.996,71 euro bideratu ziren, baina GIPZNk ez du EHko proiektuen inguruko datuak jaso. Gipuzkoako Foru Aldundiaren D laguntza lerroak "Larrialdiko laguntzarako eta ekintza humanitarioko proiektuak" du izena, baina GIPZNri igorritako datuetan proiektu horiei Oinarritzko Osasuna (122) edo Gobernua eta Gizarte Zibila (151) bezalako CRS kodeak ezarri dizkie, ez die EHri dagokiona (700).

Aurreko urteetan bezala, txosten honetan GIPZNren datuak erabili dira, AEen datuak alderatzeko aukera ematen dutelako. CRS kodeak egoki adieraztea garrantzitsua da, erakundeek EHn egiten duten ahaleginari dagokion balioa eman ahal izateko.

6. TAULA. AEek EHra zuzendutako GLOa, 2022-2024 (eurotan)

AE	2022	2023	2024
Andaluzia	1.099.082	700.000	1.575.000
Aragoi	550.431	651.245	275.000
Asturias	359.200	1.114.900	175.000
Balearrak	950.000	878.713	1.832.639
Kanariak		0	1.310.000
Kantabria	97.506	283.268	415.445
Gaztela eta Leon	200.000	244.000	797.745
Gaztela-Mantxa	371.390	416.390	502.390
Katalunia	4.009.770	6.312.092	4.960.000
Valentziako Erkidegoa	7.966.597	8.537.767	7.827.473
Extremadura	1.350.000	1.548.279	529.000
Galizia	491.697	796.011	903.288
Errioxa	80.000	50.000	200.000
Madril	920.062	1.132.458	803.244
Murtzia	30.000	225.000	187.000
Nafarroa	70.000	600.000	510.000
Euskadi	8.548.097	10.050.525	11.547.463
GUZTIRA	27.093.832	33.542.670	34.350.687

ITURRIA: EGILEEK EGINA GIPZN ERAKUNDEAK ARGITARATUTAKO GLO DATUETAN OINARRITUTA

Euskal lankidetzak Ekintza Humanitariora (EH) bideratzen dituen baliabideak zenbatekoak diren behar bezala ulertzeko, lagungarria da baliabide horiek autonomia erkidego guztien esparru zabalenean kokatzea. GIPZNren datuen arabera, 2024an AE guztien artean 34.350.687 euro bideratu ziren EHra, 2023an baino ia milioi bat gehiago, azken urteetan ikusitako hazkunde joera sendotuz.

Baina, aurreko urteetan bezala, igoera horren ardura ez da berdin banatzen. Bederatzi gobernu

autonomikok finantzaketa murriztu dute, eta zortzik, berriz, handitu. Ekarpena handitu dutenen artean, lau erkidegok, Euskadik, Kanariak, Balear Uharteek eta Andaluziak, hazkunderen % 82 biltzen dute. Ekintza humanitariarako ekarpena murriztu duten erkidegoen multzoan, Katalunia, Extremadura, Valentziako Erkidegoa eta Asturias nabarmentzen dira murrizketaren tamainagatik.

Bataz beste, 2024an, autonomia erkidegoek GLOren % 10,91 bideratu zuten ekintza

7. TAULA. Autonomia erkidegoen EH gastua biztanleko 2024an (eurotan)

AE	2024ko EH (€)	2024ko biztanleria	EH biztanleko
Andaluzia	1.575.000,00	8.674.251	0,18
Aragoi	275.000,00	1.353.379	0,20
Asturias	175.000,00	1.014.191	0,17
Balearrak	1.832.639,09	1.244.757	1,47
Kanariak	1.309.999,96	2.257.957	0,58
Kantabria	415.444,80	593.365	0,70
Gaztela eta Leon	797.745,00	2.122.070	0,38
Gaztela-Mantxa	502.390,00	2.399.487	0,21
Katalunia	4.960.000,00	8.120.596	0,61
Valentziako Erkidegoa	7.827.473,00	5.415.735	1,45
Extremadura	529.000,00	1.053.072	0,50
Galizia	903.288,35	2.715.606	0,33
Errioxa	200.000,00	327.062	0,61
Madril	803.244,47	7.122.734	0,11
Murtzia	187.000,00	1.585.291	0,12
Nafarroa	510.000,00	683.404	0,75
Euskadi	11.547.462,69	2.240.145	5,15
GUZTIRA	34.350.687,36	48.923.102	0,70

ITURRIA: EGILEEK EGINA GIPZN ERAKUNDEAK ARGITARATUTAKO GLO DATUETAN OINARRITUTA

humanitariora, 2023ko % 10,45 baino apur bat gehiago. Batez besteko horri esker, baieztatu daiteke, termino agregatuetan, autonomia erkidegoek nazioarteko konpromisoa betetzen dutela, beren GLOren % 10 gutxienez ekintza humanitariora bideratzen baitute.


GIPZNren datuen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoa 2020tik ekintza humanitariora diru gehien bideratzen duen autonomia erkidegoa da, eta AE guztiek bideratutakoaren herena ematen du, EH arloko lider gisa agertuz.

Termino erlatiboetan, ekintza humanitariora Eusko Jaurlaritzaren GLOren % 18,83 da, hau da, 2023an baino 1,2 puntu gehiago, eta azken ekitaldietako goranzko joera luzatzen du. Ehunekoari dagokionez, Kanarien (% 40,86) eta Balear Uharteak (% 18,93) atzetik kokatzen da soilik, eta autonomia erkidegoen batez bestekoaren

(% 10,91) oso gainera. Lankidetzarako Euskal Agentziaren Ekintza Humanitarioko Estrategian (2024-2026 luzapena) jasotako % 10eko konpromisoa ere aise gainditzen du.

Biztanleko EHn egindako gastua aztertuz gero (adierazle horrek autonomia erkidego bakoitzaren benetako ahalegina zehaztasun handiagoz neurtzeko aukera ematen du), Euskal Autonomia Erkidegoa da berriz ere erkidego konprometituen. 2024an, 5,15 euro bideratu zituen biztanle bakoitzeko ekintza humanitariora; zifra hori erkidegoko batez bestekoa baino (0,70 euro) zazpi aldiz handiagoa da, eta per capita ekarpen handiena duen bigarren erkidegoarena (Balear Uharteak) baino 3,5 aldiz handiagoa. Bolumen absolutuan ez ezik, Euskadin ahalegin erlatibo bereziki handia ere badago gainerako sistema autonomikoarekin alderatuta.

5. GRAFIKOA. EHren bilakaera, Eusko Jaurlaritzaren (eurotan)



ITURRIA: EGILEEK EGINA GIPZNRN DATUETAN OINARRITUTA

Ekintza humanitariora bideratutako laguntzaren bilakaerari buruzko 5. grafikoak erakusten duenez, 2013ko beherakada handiaren ondoren (finantzazioa % 82 murriztu zuen), suspertze azkarra izan zen 2014an, nahiz eta 2012an bideratutakoa berreskuratzea iritsi ez. Finantzaketa maila hori, 2-3 milioi euro ingurukoa, 2020ra arte mantendu zen, eta urte horretan hirukoiztu egin ziren bideratutako funtsak eta EHri esleitutako ehunekoa, % 5,9tik % 15,5era igaro baitzen. Orduz geroztik, EHra bideratutako finantzaketak etengabe hazten jarraitu du, batez ere azken bi urteetan, 1,5 milioi hazkundearekin, bai 2023an, bai 2024an. Hazkunde horrek isla izan du EHra bideratutako GLOren ehunekoan, % 2,6ko hazkundearekin 2023an eta % 1,2koarekin 2024an, eta horrek erakusten du Eusko Jaurlaritzaren konpromiso handia izan duela denboran zehar ekintza humanitarioarekin.


Eusko Jaurlaritzaren EHren banaketa geografikoari dagokionez, Palestina, Sahararren Kanpalekuak eta Libano dira funtsen hartzailen nagusiak, eta bakoitzak milioi bat euro baino gehiago jasotzen du. Gainera, hiruren finantzaketa handitu da. Azken hamarkadetakoa hondamendi humanitario larriaren bat bizitzen jarraitzen duen Palestina da gutxien hazi dena, nahiz eta

funtsen hartzailen nagusia izaten jarraitzen duen, 2.228.399 euro. Ondoren, errefuxiatu sahararren kanpamentuak datoz, 1.552.350 euroekin (1.229.997 euro 2023an) eta Libano 1.399.999 euroekin (1.200.000 euro 2023an).

GIPZNk argitaratutako datuen arabera, aurreko urteetan gertatu den bezala, 22 herrialdetan finantzatu dira ekintza humanitarioak: horietatik hamalauk 200.000 eta 400.000 euro bitartean jaso dituzte, bi herrialdek 200.000 euro baino gutxiago jaso dituzte eta bost herrialde eta lurraldek 600.000 euro baino gehiago jaso zituzten. Garrantzitsua da euskal lankidetzak herrialde bakoitzeko finantzaketa maila horiei eustea, krisiek gehien kaltetutako herrien behar humanitarioei behar bezala erantzuteko.

Aurreko urteetan bezala, EHren banaketa premia humanitario handienak dituzten bi eskualdeetan zentratzen da, Ekialde Ertainean eta Saharaz hegoaldeko Afrikan. Bien artean EHra bideratutakoaren % 70 jasotzen dute, eta, beraz, ondo orientatutako finantzaketa da. Ekialde Hurbilak 4.028.398 euro jasotzen ditu, eta Saharaz hegoaldeko Afrikak 3.936.835 euro. Biek ala biek pixka bat handitu dituzte jasotzen dituzten funtsak 2023tik. Horien atzetik daude Ipar Afrika funtsen % 13 jasota (1.552.350 euro), Hego

6. GRAFIKOA. Eusko Jaurlaritzaren 2024an herrialde eta lurraldeen arabera esleitutako EHren banaketa



ITURRIA: EGILEEK EGINA GIPZNRN DATUETAN OINARRITUTA

Amerika EHRako funtsen % 9arekin (milioi bat euro) eta Erdialdeko Amerika eta Karibea funts guztien % 5arekin (599.582 euro).

Euskal TEen EH

Autonomia erkidegoetako tokiko erakunde guztiak kontuan hartuta, ekintza humanitariora 9.502.603 euro bideratu ziren 2024an, hau da, 2023an baino 630.507 euro gehiago. Hala ere, hazkunde orokorraren irudiak lurraldeen arteko alde nabarmenak ezkututzen ditu: bederatzi autonomia erkidegoetako tokiko erakundeek beren ekarpenak murriztu dituzte (Kataluniakoak, Balear Uharteetakoak eta Aragoikoak izan dira murrizketarik handienak aplikatu dituztenak), eta zortzi autonomia erkidegoetakoek finantzaketa handitu dute, bereziki Kanarietakoek, Extremadurakoek, Madrilgoek, Nafarroakoek eta Andaluziakoek.

Euskal Autonomia Erkidegoko tokiko erakundeak, orotara, finantzaketa murriztu dutenen

arteana daude. Murrizketa % 4koa izan da eta, euskal tokiko erakundeak oraindik EHra gehien bideratzen dutenen artean daude. 2024an, TEek 1,6 milioi euro bideratu zituzte EHra; finantzaketa bolumenari dagokionez, 3. autonomia erkidegoa da, 2022tik duen postua mantenduz.

EAEko tokiko erakundeek EHrekin duten konpromisoa nabarmena da finantzatzailer nagusien zerrendan, izan ere, Bizkaiko Foru Aldundia eta Gasteizko eta Bilboko Udalak, ageri dira estatuan mailan EHra gehien bideratzen duten hamar TEen artean. Euskadi da zerrenda horretan tokiko erakunde gehien dituen autonomia erkidegoa da.

Finantzaketari dagokionez, Bizkaiko Foru Aldundia nabarmen dago, 2024an ere sektore horretara diru gehien bideratzen duen tokiko erakundea baita; ondoren, Gasteizko Udala eta Bilboko Udala daude. Arabako Foru Aldundiaren ekarpena ere aipatzekoa da; izan ere, 2023an ez zuen ezer bideratu EHra, eta 2024an 159.291 euro bideratu zituen. Kontrara, Gipuzkoako Foru Aldundiak 346.086 euro bideratu zituen EHra 2023an, eta GIPZNren datuen arabera ez zuen ezer bideratu 2024an. Hala ere, azaldu den bezala, Aldundiaren datuen arabera 439.997 euro bideratu dira, eta horrek Euskadiko bigarren tokiko erakunde gisa kokatuko luke EHRako finantzaketa bolumenari dagokionez. Zalantza hauek uxatu eta ekarpenak ikusarazteko, garrantzitsua da EH proiektuak behar bezala kodetzea.

TEek EHra bideratzen duten GLOren ehunekoari dagokionez, alde handiak daude sei emailen nagusien artean. Arabako Foru Aldundiak eta Gasteizko Udalak % 10 baino gehiago esleitzen diote EHri; lehenengoak % 12,5 eta bigarrenak, % 11,4. Gipuzkoako Foru Aldundia ere konpromisoa betetzetik hurbil ibili zen: % 9,8 (aldundiaren beraren datuak erabiliz gero). Urrun samar daude, berriz, Bizkaiko Foru Aldundia (% 7,2 bideratzen du EHra), Donostiako Udala (% 6,9) eta, azkenik, Bilboko Udala (% 4,7); beren GLOren % 10 EHra bideratu behar dela dioen nazioarteko konpromisoa betetzeko ahalegina egiten jarraitu behar dute.

Guztira 43 proiektu finantzatu dira, eta horietatik 32 proiektutara 35.000 euro baino

8. TAULA. 2024an EH finantzatu duten euskal TEak (eurotan)

TE	EH 2024
Bizkaiko Foru Aldundia	639.997
Arabako Foru Aldundia	159.291
Zumarragako Udala	3.000
Zarauzko Udala	36.449
Vitoria-Gasteizko Udala	386.316
Getariako Udala	430
Errenteriako Udala	35.000
Durangoko Udala	10.870
Donostiako Udala	110.778
Bilboko Udala	259.000
Beasaingo Udala	30.000
Guztira	1.671.132

ITURRIA: EGILEEK EGINA GIPZNK ARGITARATUTAKO GLO DATUETAN OINARRITUTA

gutxiagoko bideratu dira; 6 proiektutarako 70.000 eta 80.000 euro artekoan bideratu da, eta 5 proiektuk 120.000 euro baino gehiago jaso dute. Positiboki baloratu behar da proiektuen herenak 70.000 euro baino gehiago jasotzea; beste autonomia erkidego batzuetan ez da oso ohikoa, eta agerian uzten du EHrekiko konpromisoa.

Euskal TEen EHren banaketa geografikoari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko udalek 19 herrialde eta lurralderi ematen diete dirua. Hartzaile nagusiak sahararren kanpamentuak (330.983 euro), Palestina (292.250 euro), Sudan (120.000 euro) eta Niger (105.660 euro) dira. Lurralde horiek guztiek arreta berezia merezi dute, egoeraren larritasunagatik edo ahaztutako krisiak izateagatik.

4. Ondorioak eta gomendioak

1 EUSKAL GLO 2024AN ERE HAZIZ

Eusko Jaurlaritzak, 2024an, % 7,5 igo zuen bere GLO. Biztanleko 27,37 euro bideratu zituen GLOra, hau da, aurrekontuaren % 0,407, legeak agintzen duen % 0,7ko konpromisotik urrun oraindik.

1

HAZI ETA BLINDATU

Eusko Jaurlaritzak GLO handituz jarraitu behar du, eta lankidetzaren arloko urte anitzeko plan lotesle bat adostu behar du, GLO progresiboki handitzeko eta 2030ean % 0,7ra iristeko.

2 OSASUN GLO ERE HAZIZ, BAINA DUEN PISUA EZ DA NAHIAKOA

2023arekin alderatuta osasun arloko zifrak % 22,5 hazi diren arren, Eusko Jaurlaritzak osasun lankidetzara bideratu zituen 1,8 milioiak 2024ko GLOren % 3,03 baino ez dira. Ehuneko hori oso urrun dago gainerako autonomia erkidegoen batez bestekotik (% 11,49).

2

OSASUN ARLOKO KONPROMISOA AREAGOTU

Lankidetzako eta Elkartasuneko Euskal Agentziak osasuna lehenetsi behar du lankidetzan, eta esparru estrategiko bat ezarri behar du bere finantzaketa handitzeko, osasuna gutxienez GLOren % 12 izatea lortu arte.

3 LEHENTASUNA

Osasun politika global ororen helburu nagusia Osasun Estaldura Unibertsala lortzeko bidean aurrera egitea da, pertsona guztiek finantza zailtasunik gabe kalitatezko funtsezko zerbitzuak eskuratu ahal izatea bermatzea.

3

HOBEKUNTZA GLOBALA

Eusko Jaurlaritzak osasun sistema publiko ekitatiboak eta Lehen Arreta sendotzen dituzten eskariei eta egitasmoari ematen dien laguntza indartu beharko luke, bai nazioarteko lankidetzaren proiektuetan, bai Euskadin.

4 TOKIKO ERAKUNDEEK OSASUN GLOAN INTERES HANDIAGOA

Tokiko 11 euskal erakundek bideratu dute osasunerako laguntza, nabarmenenak Bizkaiko eta Gipuzkoako Udala eta Donostiako Udala izanik. Baina tokiko euskal lankidetzaren % 7,1 soilik da osasunerako.

4

TOKIKO GLOAN OSASUNAREN PISUA HANDITZEA

Euskal TEek osasunarekiko duten konpromisoa indartu behar dute, giza garapenerako eta desberdintasunak murrizteko ezinbesteko sektorea baita.

5 EUSKAL EKINTZA HUMANITARIOAREN ZIFRAK

Mundu mailan, EHren finantzaketak krisi sakona bizi du. Testuinguru horretan, Eusko Jaurlaritzak 11.547.463 euro bideratu zituen EHra, bere GLOren % 18,83, eta nabarmen gairatu zuen % 10 bideratzeko konpromisoa.

5

EGONKORTASUN HANDIAGOA

Eusko Jaurlaritzak konpromisoari eusten jarraitu behar du, epe ertain eta luzera egungo finantzaketa maila berdina edo handiagoa bermatuz.

6 EUSKAL EHREN IKUSGARRITASUNA HOBETZEA

Euskal ekintza humanitarioa, bereziki TEena, GIPZNRi bidalitako datuetan, benetan dena baino txikiagoa da, ez du tokiko erakundearen ahalegina islatzen.

6

DATUEN KUDEAKETA KOORDINATZEA

Euskal lankidetzak eta GIPZNRk datuak balioztatzeke sistema bat ezarri behar dute, eta proiektu humanitarioak CRS 700 kodearekin behar bezala kodifikatzen direla bermatu behar dute, egiten duten ahaleginaren irudikapen desegokia saihestuz.

SIGLAK

Autonomia Erkidego AE	Comunidades Autónomas CCAA
Tokiko Erakunde TE	Entidades Locales EELL
Garapenerako Laguntza Ofiziala GLO	Ayuda Oficial al Desarrollo AOD
Garapenaren Laguntzarako Batzordea GLB	Comité de Ayuda al Desarrollo CAD
Creditor Reporting System CRS	Creditor Reporting System CRS
Kanpo Arazoetako, Europar Batasuneko eta Lankidetzako Ministerioa	Ministerio de Asuntos Exteriores, Unión Europea y Cooperación MAEC
Garapen Iraunkorreko Politiken Zuzendaritza Nagusia GIPZN	Dirección General de Políticas de Desarrollo Sostenible DGPOLDES
Nazioarteko Lankidetzarako Estatu Idazkaritza NLEI	Secretaría de Estado de Cooperación Internacional SECI
Udalerrien eta Probintzien Espainiako Federazioa UPEF	Federación Española de Municipios y Provincias FEMP
Espainiako Estatistika Institutua INE	Instituto Nacional de Estadística INE
Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentzia LEEA eLankidetzaz	Agencia Vasca de Cooperación y Solidaridad AVCS
Ekintza Humanitarioko Estrategia EAH	Estrategia de Acción Humanitaria EAH
Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioa NZH	Derecho Internacional Humanitario DIH
Garapen Bidean dauden Herrialdeak GBH	Países en Vías de Desarrollo PVD
Sexu- eta Ugalketa-Osasuna SUO	Salud sexual y reproductiva SSR
Gaixotasun Ez Kutsakorrek GEK	Enfermedad No Transmisible ENT
Osasun Estaldura Unibertsala OEU	Cobertura Sanitaria Universal CSU



**Federación de Asociaciones
de Medicus Mundi en España**

c/ Lanuza, 9. Local

28028 Madrid

Tel.: 91 319 58 49 / 902 101 065

federacion@medicumundi.es

www.medicumundi.es



Médicos del Mundo

c/ Conde de Vilches, 15

28028 Madrid

Tel.: 91 543 60 33

informacion@medicosdelmundo.org

www.medicosdelmundo.org